

292. alea - 2024ko otsaila  
Debako herri aldizkaria

Zuhaitza  
Wald-beba  
euskara  
elkartea

# Berriketan



MINBIZIAREN AURKAKO AECC ELKARTEA

# Boluntarioak lagun minbiziaren aurrean



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127

Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea

20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

 [www.facebook.com/adatsileak](http://www.facebook.com/adatsileak)  
 @adatsileak



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# Urlo

Aholkularitza  
Komunitateen  
kudeaketa  
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



janire & maitane  
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

## Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)



## ARENA BAR

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

# ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba



## LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

Maitena Arrizabalaga Deba  
Odontologia

Kolegiatu zk.20.000.975

# maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



## Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
Tel: 685 703 843



## AURKIBIDEA



# BERRIKETAN

## 292

2024ko otsaila

**Azaleko irudiaren egilea:**  
Nerea Bedialauneta Alkorta



**10 KORRIKA**  
Martxoaren 20an  
zeharkatuko ditu  
Debako kaleak  
23. Korrikak



**13 ALBISTEAK**  
Debako Udalak  
ia 10 milioi euroko  
aurrekontua onartu du  
2024rako



**19 ELKARRIZKETA**  
Kultur Elkartearen  
emango duen  
kontzertuaz mintzo da  
Eñaut Elorrieta



**22 ERREPORTAJEA**  
30 emakumek eman  
dute izena Iruleak  
taldeak antolatutako  
pala ikastaroan



**24 ARGAZKI GALERIA**  
Kaldereroek eta  
inauteriek lagatako  
irudiekin osatutako  
bilduma ikusgai



**28 AGENDA**  
Datozen asteotan  
egingo diren jarduerak  
eta ekimenak jaso  
ditugu atal honetan

**Zuhatzza** euskara  
elkartea

**Berriketan**

**ARGITARATZAILEA**  
Zuhatzza Euskara Elkarte  
**HELBIDEA**  
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)  
**TELEFONOAK**  
943 19 13 83 / 632 04 33 22  
**HEDABIDEAREN E-MAILA**  
berriketan@zuhatzza.com  
**ELKARTEAREN E-MAILA**  
koordinatzailea@zuhatzza.com  
**ERREDAKZIOA**  
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta  
eta Alex Turrillas  
**KOORDINATZAILEA**  
Izaro Aulestiarte

**PUBLIZITATEA**  
Joseba Escudero eta Alex Turrillas  
**LOGOTIPOAREN DISEINUA**  
Iñaki Elosua  
**MAKETAZIOA**  
Maku Oruezabal  
**TIRADA**  
1.400 ale  
**MAIZTASUNA**  
Hilabetekaria  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**LEGE GORDAILUA**  
SS/246/200  
ISSN: 2171-7656

### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta ergo izen-abizenak soilik argitaratu. Idatzia [berriketan@zuhatzza.com](mailto:berriketan@zuhatzza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## Kultur Mahaia hibernaziotik esnatzeko garaia heldu da; otsailaren 23an, bilera irekia



Duela bost urte, 2019an, sortu zen Kultur Mahaia proiektua, Deban kultur esparruan dauden gabeziei erantzuteko helburuz. Izan ere, nabaria zen herriko jarduera kulturalak aurrera eramateko azpiegitura baten beharra, baita eragileen arteko koordinazio eta elkarlan falta ere. Hala jarri zen martxan kultur eragileen eta norbanakoen arteko koordinaziorako eta elkarlanerako sortutako gunea.

Antolakuntza eredu bat adostu zen: *Kultur Mahaia* eragileen asanblada orokorra zen, herriko kultur dinamikaren koordinazio gunea; *Zubeltzu Iruten* kultur gune fisiko baten beharrari erantzuteaz arduratzen zen; eta, era berean, aipatutako proiektu horiek gidatzeko eta dinamizatzeke, lantalde ezberdinetako ordezkariak osaturiko *talde motorea* sortu zen.

Proiektura hogeitik gora eragiletako kideak batu ziren eta, poliki-poliki, oztopoak oztopo, lanean jardun genuen. Baina 2020ko udaberriko antolatzen ari zen Kultur Loraldia ezin izan zen loratu; martxoko bi asteburu kultur egitasmoz betetzea zen plana, baina pandemiak gogor jo gintuen, eta negu ilun batean hibernatzera behartu zuen Kultur Mahaia.

Pandemiatik guztiz errekuperatuta, herriak ez dio utzi kultur ekitaldiak antolatzeari. Duela bost urte aztertutako oztopoek bere horretan dira, edo are larriago, baina argi dago debarren artean elkartzeko eta mugitzeko grina badagoela. Txoritxoan kantuak entzuten hasi dira, eta larreak loratzen. Kultur Mahaia hibernaziotik esnatzeko garaia heldu da.

Herriko eragile eta norbanako guztiak gonbidatzen zaituztegu otsailaren 23an, ostirala, Kultur Elkarteko liburategian 18:00etan egingo den bilera irekira. Denon artean jar gaitezen berriz martxan herriko kulturaren alde!

Kultur Mahaia

## Badator Errigoraren udaberriko kanpaina. Eutsi gureari!



Jasateko zaila izateaz gain, ulertzeko ere ez da erraza olioaren prezioen eromena. Merkatu logika nagusiak agintzen du bazter guztietan. Ez da gaurkoa logika global hau. Azken hamarkadetan, ondorio adierazgarriak ekarri ditu Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko nekazaritzara ere, gainbehera larriar utziz. Urrun baino urrunago gaude herri bezala ditugun elikadura beharrak aseko lituzkeen ekoizpenetik.

Logika horrek guztiok harrapatzen gaitu. Errigoraren komunitatea ere bai, jakina! Bizi ditugun kontraesanak norbanakoarenak baino gehiago komunitatearenak direla sinetsita, onartu eta taldean aurre egitea eraginkorragoa delakoan gaude. Gure ibilbide luze-laburrak hori erakutsi digu, hamar urte bete-bete hauetan bestelako bideei ekiteko gaitasuna dugula. Horrexegatik, hain zuzen, bueltan gatzoz beste behin ere.

Udaberriko kanpaina honetan, oliba-olio birjina estra (bost litroka), arroza, pasta, ardoa, lekaleak eta kontserbak (hamabi ontziko sortetan) eskatu ahal izango dira, ekoizlearen jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta. Otsailaren 25etik martxoaren 13ra bitartean egin ahal izango dira eskaerak, Errigoraren webgunean (*errigora.eus*) zein telefonoz (848 87 12 23 zenbakira deituta), eta produktuak Deban bertan jaso ahal izango dira, maiatzaren 15ean.

Martxoaren 7an, gainera, gure produktuak probatzeko aukera ere izango da herrian bertan, Zuhatzak Lagun Artean elkartean egingo duen dastaketan (doakoa izango da eta parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurrez, 688 84 03 08 telefonora mezua bidalita).

Eutsi diezaiogun bada gureari, egin dugun, egiten ari garen eta egiteko dugun bideari.

Errigora ekimeneko kideak





NAGORE DORRNSORO

## Goiko eskola

Ikastola eta goiko eskola. Infernua eta zerua; zerua eta infernua. Poz eta beldur berberen jabe ginen umeak; kaleak kromo-kolpe, ziba-punta, sokasalto eta baloiekin erretzen genituen ume askeak. Bereizitako debarrak.

“Nor bere etxean eta jainkoa guztionean”, bertute-jabe norbere eskolakoak baino ez ziren, ordea. Goikoei, “hazur-beltz”-en ondorengoei, kutsu hura zerien; behekoak, gaztelania barregarrian aritzen ginen kaikuak ginen, baserritar itziartarren bilobak asko. Eta, azkenik, autobusak goiko eskolan lagatzen zituen (unibertsoa keinuka!) baserritarrak zeuden. Konplexuak eta etiketak. Zer lehenago oiloa ala arrautza?

80koa: konplexuz eta tentsioz betetako hamarkada konplexua. Eta “ez dira betiko garai onenak” kantatu arren, orain, perspektibaz, diot txarrenak ere ez zirela izan, eta egungo sofistikazioarekin ere konplexuak makillatu eta pantailetatik zabaltzea izan dugula lorpenik behinena.

Temati baina unibertsoa beti, eta zinez gertu jarri izan dizkit goiko eskolakoak, zenbait lagun min egin arte. Talde bateko kide ere baditut orain, eta hain justu haiek erakutsitako argazkia izan da atzera eraman eta zutabea ekarri didana: hondartzari begira, eserita, hiru lagun gomadun praka eta Spandau Ballet-en tipoko ileekin. Segituan, arropa horien azpian, neure burua ikusi dut, kuadrillakoekin, pipak jaten.

Eta azkenaldian (batzuetan eroso, besteetan ezinbestean) egitea egokitu zaidan ariketaren emaitza ikusi dut berriro: berez itxi diren zauriak, parekoaren zauriari begira.

**"Poz eta beldur berberen jabe ginen umeak; kaleak kromo-kolpe, ziba-punta, sokasalto eta baloiekin erretzen genituen ume askeak"**

 WiFi  
 LIZ.-ZK.: 3  
**TaxiAlain Deba**  
[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)  
**636 135 008**  
[alain@taxideba.eus](mailto:alain@taxideba.eus)

 **MAIEDER** Eider Sampayo  
 hertz klinika Maialen Linazasoro  
 Inplanteak eta kirurgia **Zarautz**  
 Periodontzia · Endodontzia Kale Nagusia 9-1  
 Estetika eta zuriketak 943 13 32 69  
 Protesiak · Odontopediatria 722 81 56 60  
 Azido hialuronikoa [dental@maieder.com](mailto:dental@maieder.com)  
 Aho-aurregi eta ATM alterazioak [www.maieder.com](http://www.maieder.com)



1959

## Ama Birjina angularien bizkar gainean

Argazkia 1959. urtekoa da. Herritarrek ongietorria egin zioten, Artzabal auzoan, angulariek bizkar gainean zeramaten Itziaroko Ama Birjinari. Irudia Madrildik ekarri zuten, bere egoera kaskarragatik Jose Lapayese Bruna artista ezagunaren tailerrean zaharberitu ondoren. Madrilen egon zen bitartean, garai haietan bertan bizi ziren Maria Dolores Davilaren eta haren senar Teodoro Aguirre debarraren etxean egon zen artelana, denbora batez. Familiaren esanetan, pertsona asko (udatiarrak eta debarrak) joaten ziren Ama Birjinaren irudiaren aurrean debozioz erreztatza, haien Madrilgo etxeko gela batean prestatutako otoizleku inprobisatuan.

Alex Turrillas Aranzeta

Informatika  
Tresneria  
informatikoa



Elektronika  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**atari**  
INMOBILIARIA

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
eskolanda

"maite ditut nire/guroz basterrak"

Larsundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)



**marruecos**  
viajes y tours

Neurrira egindako  
bidaiek Marokora  
**607 76 11 46**  
[www.viajesytoursmarruecos.com](http://www.viajesytoursmarruecos.com)



IBON URKIA

## Birao festa

Orain dela gutxi, aldizkari honetako zutabegile batek zenbait birao aipatu zizkigun, ikasleekin egindako ariketa baten harira. Guztien artean, barrea eragin zion "gaizki egindako mondejua" nabarmendu zuen, eta, bide batez, beste bizpahiru hitzen inguruan buruari eragiteko gonbita egin.

Bada, ekimen erakargarria zela iritzita, ustez hain "moderno" ez diren inguruko hainbati galdegin nien ea zein ziren ezagutzen zituzten biraoak. Aitortu behar dut, galdera egin eta haien aurreneko erreakzioa harridurazkoa izan zen; baina, behin konfiantza hartuta, hasi zen, hasi, birao festa barre algaraka. Honatx, beraz, jasotako bakarren batzuk: "etxekalte", "haundiputz", "sasijakintsu", "oilobusti", "zakarripurdi", "eskutxatxu", "joxekuento", "kakontzi", "txorikaka", "kakaume"...

Ez ditut azken hirurak kasualitatez jarri elkarren segidan; izan ere, dokumentatua dagoenez, naturaltasunez erabili izan ohi dugu "kaka" hitza euskaldunok, erregistro egokian, betiere. Horren erakusgarri, niri behintzat mondejuarenak adinako barregura eragin didana, nor bere burua den baino inportanteagozat edukitzeari erreferentzia egiten diona: "Kaka ere izan ez eta mokordoa dela uste izan".

**"Dokumentatua dagoenez, naturaltasunez erabili izan ohi dugu 'kaka' hitza euskaldunok, erregistro egokian, betiere"**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia - Osteopatia
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Podologia
- \* Dietista

Lersundi, 14      943 19 24 42      sasoiiko@hotmail.com

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICIÓN:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 2/105/049  
NIVEL 2

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# Elkartasun keinua Debatik Palestinara

DEBAKO GAZTE ASANBLADA

**P**asa den urtarrilaren 27an mobilizatzeko deialdia egin zuen Palestinarekin Elkartasuna taldeak, *Sionismoarekin konplizitaterik ez! CAF Palestinatik kanpora!* lelopean. Mezuak berak adierazten duen bezala, CAF euskal enpresak Erakunde Sionistarekin duen konplizitatea salatzea izan zen manifestazio nazional horren helburu nagusia. Milaka lagun bildu ginen horretarako Ordizian, palestinarren erresistentziaren alde.

Izan ere, Jerusalemgo tranbiaren hedapenean parte hartzen duen enpresa nagusietako bat da CAF. Tren horren bitartez, Palestinako lurralde okupatueta kolonien arteko garraio bidezko konexio-sarea bermatzen da, Jerusalemgo hiria sionismoaren kontrolpean dauden gainerako hiriekin lotuz. Palestinarekin Elkartasuna taldeak gogorarazi zuen bezala, proiektu hau legez kanpoko da. Trenaren eraikuntza eta hedapena okupazio sionista betikotzeko ahaleginean garatutako beste estrategietako bat da; palestinarren jabetza gehiago lapurtu, lekualdatze masiboak baimendu eta lurralde palestinarrak anexionatzea ahalbidetzen du. Okupazio eta kolonizazio egoera hau elikatzeko ezinbestekoa da mendebaldeko gobernuen eta CAF bezalako enpresen konplizitatea. Eta, mundu mailako kolektibo ezberdinek kolaborazio harreman hauek salatu dituzten arren, CAFek eta Eusko Jaurlaritza bezalako akziodunek palestinarrak pairatzen ari diren genozidio sionistaren konplize zuzenak izaten jarraitzen dute.

## Herrian ere egin dezakegu, egin behar genuke

Deban ere bazegoen zer esanik. Manifestaldia zela eta, urtarrilaren 27an bertan, Debako hondartza eta portua Palestinarekiko elkartasun mezuz beteta esnatu ziren. Urte luzez Europako hainbat estatutako banderak ikusi ditugu mastetan —Palestinak jasandako sarraskiaren erantzule zuzenak dira estatu horietako asko—, baina urtarrilaren 27ko goiz hartan bandera palestinarrak jantzi zuten pasealekua, baita CAFek sionismoarekin duen konplizitate harremana salatzen zuten mezuek ere.



**"Genozidio sionistaren aurrean, elkartasuna adierazteko eta palestinarrak herri erresistentziari babesa emateko momentua da egun bizi duguna"**

Gure aldarrikapen keinuak, ordea, asteburuak bezainbeste iraun zuen soilik: aste berria hasi bezain pronto eman zuen Debako Udalak banderak erretiratzeko agindua.

Idatzi honen bitartez, udalaren erabakiarekiko gure desadostasuna adierazi nahiko genuke. Palestinan jasaten ari diren genozidio sionistaren aurrean, elkartasuna adierazteko eta palestinarrak herri erresistentziari babesa emateko momentua da egun bizi duguna. Gure herritik hasita ere egin dezakegu, egin behar genuke.



# Euskara Plana egiteko prozesu parte-hartzailea hasi du udalak



Datozen hamar urteetan "udalaren eta herriaren gidari eta oinarri izango den" Euskara Plana garatuko duela iragarri du Debako Udalak. "Plan hori partaidetza prozesu baten bidez garatuko da eta, beraz, Debako bizilagunen lankidetzaren garrantzia ezinbestekoa izango da; Debako nortasunaren funtsezko zutabe izaten jarraituko duen etorkizuna elkarrekin eraikitzea da udalaren helburua".

Azaldu dutenez, planaren edukia osatzeko, hiru lantalde eratuko dira: transmisio/sozializazio lantaldea (familia eta eskolaz gain, kirola, kultura eta aisia, besteak beste), arlo horietan dabilzan eragileekin osatu nahi dena; merkataritza lantaldea, denda eta ostalaritzan establezimenduak dituztenekin; eta sentsibilizazio lantaldea, euskalgintzan diharduten elkarte zein, oro har, norbanako guztiekin. Lehenengo bietarako, esparru horretan diharduten herriko eragileei gonbidapena bidali zaie eta, hirugarrenean, herrian euskara garatzen eta indartzen lagundu nahi duen edonork parte har dezake.

Sentsibilizaziorako lantaldeak hiru bilera egingo ditu martxo eta maiatza bitartean, diagnostikoak

partekatzeko, hurrengo hamarkadarako helburuak eta horiek lortzeko ekintzak proposatzeko eta, azkenik, lortutako emaitzak aurkezteko, fintzeko eta osatzeko. Saio horiek martxoaren 14an, apirilaren 11n eta maiatzaren 9an egingo dira; bilera guztiak ostegunetan izango dira, 18:30ean.

## Batzarrak eta formularioa

Horrez gain, azaldu dute batzar ireki bat edo bi antolatuko direla, lantaldeek egindako lanen berri emateko eta herritarren ekarpenak jasotzeko. "Gaur egungo egoeraren ikuspegi argia izateko eta Debak hamarkada batean egon nahi duen lekurako bidea marrazteko", diagnostiko-formulario bat ere partekatu dute ([labur.eus/euskaraplanadiagnostikoa](http://labur.eus/euskaraplanadiagnostikoa)); otsailaren 29a baino lehen bete behar da.

Prozesuan parte hartzeko deia egin die Alazne Txurruka alkateak herritarrei. "Gure nortasuna mantentzeko eta indartzeko, ezinbestekoa da elkartuta lan egitea, batera, udalak, tokiko eragileek eta herritarrek. Guztion laguntzarekin, aurrerapauso handiak egingo ditugulakoan gaude".

## Aldarrikapenez eta ekitaldiz beteta dator aurtengo martxoaren 8a



Beste urte batez, aldarrikapenak izango dira nagusi martxoaren 8aren bueltan. Askotariko ekintzak eta mobilizazioak antolatu dituzte Deban eta Itziarren.

Emakumeen Nazioarteko Egunean Foruen Plazan 12:00etan egingo den elkarretaratzearekin abiatuko da egitaraua. Eguna biribiltzeko, manifestazioa deitu du DIT feministak 19:00etan eta, ondoren, Kanean Kantuzek kantaldia eskainiko du, udaletxe azpitik abiatuta. Itziarren, iluntzean egingo dute eguneko ekitaldi nagusia. Bikain jatetxearen aurrean 19:00etan elkartu eta manifestua irakurri ondoren, manifestazioa egingo dute, batukada herrikoiak lagunduta.

Biharamunean, berriz, haurrentzako ginkana egingo dute Itziarren, 11:00etan, eta Itziarko Erasoen Aurkako Taldea (IEAT) aurkeztuko dute 18:00etan. Martxoaren 10ean, bestalde, Debako Kontalariak saio berezia egingo dute Agirre jauregiko Ispiluen gelan (17:30ean), eta GOAZ taldeko kideek *Lotura basatiak* lana taularatuko dute Itziarren (Burugorri Gainean), 18:00etan.

Aurtengo egitarauarekin amaitzeko, martxoaren 17an *Asterisko* umorezko bakarriketa eskainiko du Nerea Arriolak. Ispiluen gelan izango da hitzordua, 18:30ean.



# “Herri oso baten harrotasuna” erakustera dator 23. Korrika



Martxoaren 14tik 24ra bitartean, Euskal Herri osoa zeharkatuko du euskararen aldeko lekukoak. Irundik hasi eta, hamaika eguneko ibilbidearen ostean, Baionan amaituko da Korrika, *Harro Herri* lelopean. “Herri aldarrikapenaren Korrika” izateko asmoz sortu dute leloa (eta abestia), eta “harro bai, baina ez konforme” mezua zabaldu nahi du AEK-k. Debara martxoaren 20an iritsiko da ekimena, Mendaro aldetik. Herri barrura sartuko da eta, ondoren, Mutrikurako bidea hartuko du.

**L**ehenengo Korrika 1980an antolatu zuen AEK-k eta Oñatitik Bilborako bidea egin zuen, Euskal Herria *Zuk ere esan bai euskarari* lelopean zeharkatuz. Orduetik 22 edizio eta 43 urte igaro dira, bidean milaka eta milaka kilometro, beste hainbeste lekuko aldaketa, eta askotariko bizipen eta anekdotak pilatuz. Nolanahi ere, hasierako helburu bikoitzari eusten dio oraindik ere ekimenak: euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta helduen euskalduntze eta alfabetatzean lan egiten duen AEKren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea.

Martxoaren 14tik 24ra egingo da aurten euskararen aldeko ekinaldia. Irunen hasi eta Baionan amaituko da, *Harro Herri* lelopean; euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasunaren adierazle eta erakusle da aldarria. Orotara bi mila eta bostehun kilometro izango ditu 23. Korrikak, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe. Eta, ohi den bezala, omendu bat ere izango du: Azterketak Euskaraz kolektiboa, Baxoa eta Brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak, hain justu ere.

## Martxoaren 20an Debabarrenean

Korrika zazpigarren egunean, martxoaren 20an (asteazkena), iritsiko da Debara, baita eskualdeko gainontzeko herrietara ere, baina oraingoan ez da igaroko Itziartik. Hurrengo orrialdeko mapan ikus daitekeen bezala, lasterketa Mendarotik sartuko da gure udalerrira, 13:28an. Eta zazpi kilometroko (1.546-1.552) ibilbidea egin ondoren, 40 bat minutu beranduago,



### IBIL BIDEA

QR kode bidez, sakelako telefonoan ikus daiteke lasterketaren ibilbidea.



## 23.korrika IBILBIDEA | DEBA

|         |       |                               |
|---------|-------|-------------------------------|
| 1546 km | 13:28 | Lasturko bidegurutzea > N-634 |
| 1547 km | 13:35 | N-634                         |
| 1548 km | 13:41 | N-634                         |
| 1549 km | 13:48 | N-634 > Danobat               |
| 1550 km | 13:54 | Danobat > Gaztetxea           |
| 1551 km | 14:01 | Gaztetxea > Lersundi kalea    |
| 1552 km | 14:07 | Lersundi kalea > Errota Zar   |

14:11 inguruan hartuko du Mutrikurako bidea; Errota Zarreko zubian pasako zaie lekukoa mutrikuarrei.

### Hogetik gora eragilek hartuko dute lekukoa

Antolakuntza lanetan herritarren parte-hartzea sustatu nahian, aurrean ere Korrika Batzordea eratu dute Deban. Jakinarazi dutenez, Debako eta Itziarko 26 eragilek ibiliko dute aurrean lekukoa eskuz esku. Kopurua ez da, ordea, behin betikoa, oraindik ere zabalik baitago izena emateko epea. Kilometroa erreserbatzeko azken eguna martxoaren 3a izango da; horretarako 688 84 03 08 zenbakira deitu edo [deba@korrika.eus](mailto:deba@korrika.eus) helbidera idatzi daiteke. Martxoaren 6an Kultur Elkartearen liburutegian (18:00etan) egingo den bilera irekian zehaztuko dute eragile bakoitzari egokitu zaion kilometroari dagokion tartea eta ordua.

Bestalde, martxoaren 2tik 20ra bitartean egingo den Korrika Kulturalaren egitaraua prestatzen ari dira Deban eta Itziarren. Ekintza batzuk zehazteke daude oraindik, baina hainbat jardueraren berri eman dute jadanik.

Martxoaren 3an, adibidez, *ZtandaP* umorezko bakarriketa izango da Itziarren, 18:00etan. *Bizkarsoro* filma proiektatuko dute Mendata ikastetxean martxoaren

7an, eta Kultur Elkartearen hilaren 13an (18:00etan) eta 17an (19:00etan, gaztelaniazko azpiztituluekin). Martxoaren 7an Errigoraren produktu dastaketa egingo da Lagun Artean, 18:30ean. Eta martxoaren 9an, berriz, Niala magoa izango da Kultur Elkartearen, 20:00etan.

Hilaren 15ean Debako Kontalariak ariko dira Luzaron (17:00etan), eta bertso afaria izango da gero (22:00etan) Arrano Elkartearen. Martxoaren 16an egitarau oparora izango duen Korrika Badator Eguna ospatuko da, eta hilaren 17an pala txapelketa mistoa jokatuko dute (10:30ean). Korrika ofiziala iristen den egunean bertan, martxoaren 20an, Kalean Kantuzek girotuko du herria eguerdian, eta arratsaldean Korrika Txikia egingo dute eskolako hurrek eta irakasleek.

Halaber, Korrikako materiala salgai izango da otsailaren 23an eta 24an, baita ondorengo asteburuetan ere ziurrenik. Egitarau osoa ikusgai [berriketan.eus](http://berriketan.eus)-en.

### DEBAKO ETA ITZIARKO EGITARAUA

Datozen egunotan egingo diren jardueren buruzko informazio eguneratua eta egitaraua hemen ikusgai:





## Bandak bazkideak omenduko ditu martxoaren 16an

Aste Santua gerturatu ahala, urteko lehen kontzertua eman ohi du Debako Musika Bandak eta, aurten, martxoaren 16an izango da, 12:30ean, elizako klastroan. Emanaldiaren ostean, gainera, "herritarrekin batera" bazkaria eta dantzaldia egingo dute Itziariko Bikain jatetxean. Bazkaria 15:00etan izango da eta autobusa 14:30ean irtengo da estalitako pasealekutik. Bazkarirako eta autobusean joan-etorria egiteko txartelak Debako turismo bulegoan, eta Igarza eta Mazzantini tabernetan daude salgai. "Bazkarirako txartelak 30 euroan salduko ditugu eta autobusekoak, aldiz, bi euroan".

Musikariek azaldu bezala, bazkideei eskerrak emateko baliatuko dute kontzertua. "Gaur egun 300 bat bazkide ditugu, eta herritar horien babesak eskertu nahi dugu beste behin ere". Ildo beretik, esker oneko hitzak dituzte emanaldietara hurbiltzen diren jarraitzaileentzat ere.

Bazkide kanpainarekin hasita daudela iragarri dute. Kontzertuetan egin daiteke bazkidetza, baita Interneten ere, sare sozialen bitartez. Helduen urteko kuota 12 euroan eskaintzen dute, 12 urtetik beherakoena 6 euroan, eta familiarra (hiru kide baino gehiagorena) 30 euroan; askotariko opariak zozkatzen dituzte bazkideen artean.

## Ostolaza Sarien deialdia zabaldu du Kultur Elkarteak



Debako Kultur Elkarteak Ostolaza Sarien lehen ediziorako deialdia egin berri du, "udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren

edo erakundeen lana aitortzeko eta aintzatesteko".

Lau sari banatuko ditu herriko kultur eragile ezberdinek osatuko duten epaimahaiaik (*Sortzaileak, Dinamikak, Ezinbestekoak eta Hazia Saria*), eta horietarako hautagaiak edozein herritarrek proposatu ahal izango ditu, otsailaren 22tik martxoaren 22ra bitartean. Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 11n egingo da, Kultur Elkarteak Bazkidearen Eguna ospatzeko antolatuko duen egitarauaren baitan.

Ostolaza Sariet buruzko informazioa, deialdiaren oinarriak eta hautagaitzak aurkezteko formularioak [labur.eus/ostolazasariak](http://labur.eus/ostolazasariak) atarian daude eskuragarri.

## Antzokietako birari ekingo dio Neomak musika taldeak

Udaberrirako *Kontu zaharrak berri* antzokietako bira iragarri du Alaitz Eskudero debarra kide duen Neomak taldeak. Zazpi kontzertu emango dituzte, beste hainbeste aretotan: martxoaren 2an Victoria Eugenia (Donostia), martxoaren 10ean Tanka Antzokian (Donibane Lohizune), martxoaren 14an Arriaga Antzokian (Bilbo), martxoaren 23an Gayarre Antzokian (Iruñea), apirilaren 14an Amaia Antzokian (Arrasate), apirilaren 20an Soreasun (Azpeitia), eta apirilaren 23an Gasteizko Principal Antzokian. Aipatutako Donibane Lohizuneko emanaldia berezia izango da, gainera, bertan Herri Urratseko aurtengo abestia aurkeztuko baitu taldeak.

### ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
[fontaneriaiturlan@iturlan.com](mailto:fontaneriaiturlan@iturlan.com)



A. Esnaola  
P. Echeverria

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR  
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

# Debako Udalak 9.946.508 euroko aurrekontua onartu du 2024rako



Aurrekontuak aldeko zazpi botorekin eta sei abstentziorekin onartu ziren. DEBAKO UDALA

Urtarrilaren 31ko osoko bilkuran onartu zuten 9.946.508 euroko udal aurrekontua 2024rako, EAJ-PNV eta Orain Deba alderdien babesarekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. Kopuru horretatik, 1.060.000 euro Itziaroko Auzo Udalera bideratuko dituzte, eta 669.608 euro Deba Musikal Patronatura.

Aurrekontu berriari esker, "Debak hasiera berria" izango duela aipatu du Alazne Txurruka alkateak. "EH Bilduren aurreko udal gobernutik jasotako gorabeheren gainera, aurrekontu hauek Deba biziberritzeko lehen urrats garrantzitsua dira: aurrekontuen ikuspegi berri honekin, herritarren oinarritzko beharrei erantzun nahi zaie, eta esparrusendobateman nahi da debarrek beren bizi proiektuak beren udalerrian osotasunez eta konfiantzaz garatzeko aukera izan dezaten". Erantsi duenez, aurrekontuak "zifra bat baino gehiago dira; azken urteetan gure herriak izan duen joera

dekadentearekin amaitzeko dugun konpromisoaren isla dira".

Besteak beste, gizarte politiken arlora bideratuko den gastua azpimarratu du alkateak: "%15,6 handitu dugu gizarte politiken gastua, 2023ko datuekin alderatuta, 590.667 euroko aurreikuspenarekin. Garrantzitsua da nabarmentzea alokairurako laguntzetara bideratutako partidak nabarmen handitu direla, bikoiztu baino gehiago egin baitira aurreko ekitaldiarekin alderatuta".

Halaber, gobernu taldearen ustez, zenbakiak garapen ekonomiko eta turistikoarekiko konpromisoa ere islatzen dute. "Arlo horietan inbertsioa %46 handitzea erabaki dugu, eta horrek erakusten du Deban garapena eta oparotasuna bultzatzeko erabakia hartu dugula".

## "Inbertsio berriak, estrategikoak"

Udaletik igorritako prentsa oharren arabera, "aurten inbertsioak 893.846 eurokoak izango dira; 2023an aldiz, 134.574 euro

bideratu ziren". "Diru sarrera eta gastu arrunten artean superabitik egongo ez denez, eta trantsizioko aurrekontuak direnez, inbertsio berriak 2023ko ekitaldiko gerakinaren kontura egingo dira".

Hauek dira inbertsio nagusiak: Zaintza-ekosistema (gizarte politikak) 100.000 euro, Eraginkortasun Energetikoaren Proiektua (Ingurumena) 223.000 euro, Irulearen kaperan egin beharreko konponketak (Hirigintza) 46.315 euro, Irisgarritasun Plana (Hirigintza) 18.000 euro, Gipuzkoako Urak (Alameda) (Hirigintza) 18.000 euro, Casa Campoko behatoki berria (Turismoa) 14.000 euro, Karsta eta Gizakia (Turismoa) 30.000 euro, eta Etxebizitza plana (Gizarte zerbitzuak) 15.000 euro.

Bestalde, udal plantilla ez handitzea erabaki dute.

## "Lau bilera oposizioarekin"

Aurrekontuak adosteko prozesuari dagokionean, Txurruka alkateak azaldu du EH Bildurekin lau bilera egin zituztela abenduaren 19tik urtarrilaren 19ra bitartean, "gure udalerriko finantza plangintzan hainbat ikuspegi txertatzeko ahaleginean". Dena den, bere esanetan, "oposizioaren ekarpenak galderak eta zalantzak planteatzera bideratu dira. Udal gobernu taldeetik erantzun eta argitu ditugu kezka hauek, prozesu garden eta eraikitzaile bat mantentzeko helburuarekin. Hala ere, azken lau urteetan EH Bilduk izandako esperientziak eta zinegotzietako bat %70ean liberatua izateak ez du lagundu prozesuan lankidetzak aktiboago bat izaten, ezta proposamenak egiteko orduan ere".

# "Abstentzio kritikoa" azaldu eta zenbait datu "argitu" ditu EH Bilduk

Debako EH Bilduk pasa den urtarrilean onartu ziren aurrekontuen balorazioa egin du, baita bere "abstentzio kritikoa" azaldu ere. Koalizioaren ustez, EAJK eta Orain Debak aurrekontuak onartu ostean kaleratutako oharrean eta udalaren webgunean "hainbat datu apainduta zeuden, herritarrekiko zintzotasun eta gardentasun falta erakutsiz". "Ezinbestekotzat" jo du honako argibideak ematea:

Hitez aurrekontuari eta partidei dagokienean EH Bilduk egindako ekarpenak kontuan hartuko zirela adierazi zitzaigun arren, horiek partzialki ikusi dira zenbaki eta partidetan.

Esate baterako, Etxebizitza Plana eta udalerrri osoko azterketa sozioekonomikoa, aurreko agintaldiko konpromisoei eutsita, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) aurrelanketarako eta gure herriko egoerari aurre egiteko tresna izango da; partida horietan ez dela diru nahikorik aurreikusi nabarmendu genuen.

Ludoteka proiektua hizpide, bestalde, aurreko agintaldian indar politiko guztiek zerbitzu horren beharra identifikatu eta horrekin aurrera jotzeko konpromisoa hartu zuten; udal gobernuak aurten proiektu honi ez diola helduko adierazi du, "dirurik ez dagoela" argudiatuta. Ez dugu ikuspegi honekin bat egiten, inondik inora, eta EAJren irizpide aldaketa ulergaitza iruditzen zaigu.

Itziariko Auzo Udalaren aurrekontua azken urteetan elkarlanean adostu izan da, aurten ez bezala. Aurrekontuaren kalkulua egiteko erabilitako irizpideak, ordea, erabat arbitrarioak eta kezkarriak dira.

## Akordioetara heltzeko borondate gutxi

Negoziaketa prozesuari eta udal gobernuaren jarrerari dagokionean, gure botoaren zentzua positiboa izan

## "Gure iritziz, lankidetzarako guneak eskaini behar dira, frontoi dinamikak alboratuz"



zedin akordioetara heltzeko borondate gutxi ikusi dugu. EH Bilduren partetik jarrera eraikitzailea izan dugu, galderak, ekarpenak eta proposamenak eginez, eta gure jarrerak zein proposamenak arrazoituz. Uste dugu udal gobernuak, eta batez ere alkateak, herritar gehien ordezkatzan dituen indarra den EH Bildu aintzat hartzeko ariketa sakonagoa egin beharko lukeela. Gure iritziz, lankidetzarako guneak eskaini behar dira, frontoi dinamikak alboratuz.

Udalaren webgunean argitaratutako oharrean apaindutako datuei dagokienean, zera argitu nahi dugu:

- "Aurten, inbertsioak 893.846 eurokoak izango dira; 2023an aldiz, 134.574 euro bideratu ziren", zioen oharra. Bada, aurrekontuetan ez da inbertsiorik aurreikusi. Gobernuak egin nahi dituen inbertsioak, egitekotan, altxortegitik egin beharko dira. Eta 2023rako aurreikusi ziren inbertsioen kopurua 134.574 eurokoa izan zen aurrekontuetan. Altxortegitik, ordea, 759.800 euro bideratu ziren inbertsioetara.
- "Alokairurako laguntzetara bideratutako partidak bikoiztu baino gehiago egin baitira aurreko ekitaldiarekin alderatuta", aipatzen zuten oharrean. 2023an etxebizitzaren alokairurako 8.000 euroko partida aurreikusi genuen eta 2024rako 23.000 eurora igo dute partida, baina ez alokairurako dirulaguntzetarako soilik. Partida horretan, 15.000 euro azterketa sozioekonomikorako aurreikusi dituzte; beraz, alokairurako dirulaguntzak berdin mantendu dira.
- "100.000 euroko inbertsioa egin dugu gure udalerriko egungo errealitatera egokituko den Zaintza-ekosistema bat garatzen hasteko", adierazi zuten. Baina inbertsio hori ez dago egin eta 100.000 euro horiek, izatekotan, altxortegitik bideratuko dira.



# Udal aurrekontuekiko desadostasuna adierazi du Itziarko Auzo Udalak

Arantza Egaña Aldalur Itziarko auzo alkateak hitza hartu zuen udal aurrekontuak eztabaidatu eta onartu zituzten urtarileko osoko bilkuran, Debako udaletxean. Bertan nabarmendu bezala, Itziarko Auzo Udalak aurrekontuekiko desadostasuna agertu du, batik bat horiek onartzeko baliatu den prozedurari dagokionean. Hona hemen auzo udalaren balorazioa eta ikuspuntua:



Arg: ANDERSALEGI

Urtarrilaren 31n onartu zituen Debako udal gobernua 2024ko aurrekontuak. Dakizuenetz, horiekiko portzentajearen dagokio Itziarko Auzo Udalar bere kopurua. Honenbestez, hauek dira agintaldi berriko lehen aurrekontuak, bederatzigarren zuzkidura izanik, antolaketa berria 2015ean martxan jarri zenetik; egindako bidea egonkortu eta eraikitzen ari den erakundearen adierazle.

Aurrekontu berrien onarpena normalizazio instituzionalaren seinale izanik ere, bere desadostasuna adierazi du Itziarko Auzo Udalak, aurrekontuak onartzeko baliatu den prozedura dela eta. Izan ere, joan den agintaldian Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren artean sinatutako hitzarmenaren oinarriak ez ditu betetzen. Gogorarazi behar da balio handiko hitzarmena dela entitate txikiaren garapenerako, inplikaturako alderdi politiko guztiek berretsia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza alorraren bermearekin.

## Iazko eskaintza berbera

Debako Udalaren 2024ko aurrekontuek %5,73ko igoera izan dute aurtan, Foru Funtsetatik jasoko dituen gehigarriei esker. Itziarko Auzo Udalar etorri zaion eskaintza iazko berbera da, ordea, igoerarekin egokituko litzaiokeena baino 97.528 euro gutxiago. Udal langileek auzo udalari eskaini beharreko dedikazioaren aurtengo kostua 196.329 eurokoa litzateke; hor dira aparejadorea, teknikaria, harrera bulegoko administraria, brigadaren ehunekoak, idazkariaren ehunekoak eta diruzainaren ehunekoak. Eta kopuru hori bere horretan ezartzen bazaio formulaz dagokion 1.343.857 euroko aurrekontu orokorrari, 1.147.528 eurokoa litzateke gainontzeko oinarria. Aitzitik, Debako Udalak erabaki duen oinarria

1.050.000 eurokoa da. Horrek inbertsio edo gastuetarako ahalmena gutxitzen dio auzo udalari.

Horrez gain, kontuan izan behar da gastu orokorreko igoera nabarmena izan dutela (hondakinen kudeaketaren aurrekontua %13 garestitu da, 50.000 euro inguru, lehendik ere auzo udalaren aurrekontuaren %40tik gora hartzen zuelarik; bestalde, bistakoa da bide konponketarako eta edozein obratarako materialaren garestitzea).

Hala ere, Debako Udaleko Gobernu Batzordearekin elkarriketan informalki adieraziz, eta ondoren urtarrilaren 31ko Debako Udalaren osoko bilkuran berretsiz, agindu zaigu Itziarko Auzo Udalar aparteko partiden bidez lagunduko zaiola urtean zehar, bestela gauzatu ezingo liratekeen proiektu ezberdinetan, hala nola bide konponketetan, Lasturko erabilera anitzeko gelan eta abarretan, tokatzen den kopurura iritsi arte.

Aurrekontuaren kopururik handiena urteroko gastu arruntaren baitan kokatzen da: zerbitzu ezberdinak, alokairuak, kontratuak, bestelako eskaintzak... Bestalde, baserri bideen konponketak egitea aurreikusita da; hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzen irizpideen baitan egin ohi dira, betiere auzo udalak lan horiek aurretik kudeatu eta finantzatzeko partidak bermatzen baditu. Aurrekontuon horniduraz gain, hainbat dirulaguntza eskaera tramitatuko ditu auzo udalak 2024an ere.

**"Joan den agintaldian Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren artean sinatutako hitzarmenaren oinarriak ez ditu betetzen"**

# Minbiziaren aurkako elkarteko kideak urte luzez lanean

Otsailaren 4an Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zen eta, egun hori aitzakia hartuta, Deban gaitzaren aurka lanean ari den taldeko kideekin bildu da *Berriketan*. Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak (AECC Gipuzkoa) gaixotasuna ikusarazteko edo goiz detektatzeko antolatzen dituen kanpainetan parte hartzen dute Debako boluntarioek. Era berean, AECCren funtzionamendua babesteko eta ikerketa onkologikoko proiektuak finantzatzeko dirua batzeko helburuz egiten diren ekintzetan ere jarduten dute lanean.



Miren Ibañez eta Itziar Muga boluntarioak.

**K**asuek behera egin badute ere, minbiziak oraindik ere heriotza kausa nagusietako bat izaten jarraitzen du. Osakidetzaaren arabera, EAEn urtean 14.000 minbizi kasu berri diagnostikatzen dira batez beste, eta heriotzen lautik bat eragiten ditu (%27,4). Datuak kezagarriak izan daitezkeen arren, gaitzari aurre egiteko bide eta modu berriak ikertzen eta zabaltzen hasi dira, eta horrek itxaropen izpi bat ekarri die gaixotasuna pairatzen ari direnei zein haien ingurukoiei.

Urte luzez gaitzaren aurkako borrokan lanean diharduen taldeetako bat da Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC). Urteak daramatza paziente onkologikoen bizi kalitatea hobetzen saiatzen eta hori guztia, neurri handi batean, boluntarioen "funtsezko" lanari esker gauzatzen da. Elkartearen esanetan, "berebiziko garrantzia" du hainbat herritarrek musutruk egiten duten lanak, eta Deban ere ondo dakite hori.

AECCk Gipuzkoan dituen boluntario horietako bi dira Miren Ibañez eta Itziar Muga. Duela zazpi bat urte hartu zuten herriko taldearen gidaritzan. "Aurreko batzordeko kideei laguntzen hasi genuen gure ibilbidea. Diru-bilketa edo beste zerbaitegin behar zenean, laguntzera hurbiltzen ginen. Baina adinean aurrera egin ahala, eta izugarriko lana egin ondoren, aurretik zeudenak ardurak delegatzen hasi ziren. Atsedean hartzeko unea zela erabaki zutenean, guk hartu genuen haien lekukoa", azaldu dute.





Taldeko boluntarioak Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunean udaletxeko balkoian eskegi zuten irudia eusten.

Bizpahiru kide arduratzen dira taldeaz, baina tokiko ordezkariak kuadrillako hamar bat lagunaren artean kudeatzen dutela azpimarratu dute. "Batzuentzat, gu gara erreferentziatzeko pertsonak taldean, baina talde handiago baten lana dago atzetik. Ez hori bakarrik, laguntza behar dugun guztietan, boluntario sare sendo baten babesa daukagu; zerbait antolatzen dugun bakoitzean, 30 pertsona inguru inplikatzeko dira ekintzetan".

Aipatu dutenez, kafe bat hartzen duten bitartean egiten dituzte batzarrak, lagunarteko giroan. "Taldeak, egia esan, ez du lan handirik eskatzen. Bailarako gainontzeko taldeetako arduradunekin batzar bat izaten dugu hilero Eibarko egoitzan, eta bertan esaten dena Whatsappez edo hurrengo hitzorduan partekatzen dugu". Horiak hala, taldeko kide izateak "konpromiso txikia" eskatzen duela gaineratu dute. "Noizean behingo kontuak izaten dira eta, beraz, ez gara maiztasun zehatz batekin biltzen. Whatsapp talde bat dugunez, zerbait egin behar den bakoitzean deialdia egiten dugu, eta kito. Datorrena beso zabalik hartuko dugu: gogoia izatea da baldintza bakarra".

### "Kaleko boluntariotza"

Deban, batez ere, "kaleko boluntariotza" deritzoten esparruan aritzen dira. "AECRen funtzionamendua babesteko eta ikerketa onkologikoko proiektuak finantzatzeko dirua batzea da gure egiteko nagusia.

Biltzen den dirua, besteak beste, minbizia duten pazienteei eta haien senideei Eibarko egoitzan doan eskaintzen zaien arreta sustatzera eta zerbitzuak indartzera bideratzen da. Horrez gain, Gipuzkoako elkarrekin gaitza ikusarazteko edo goiz detektatzeko antolatzen dituen kanpainen parte hartzen eta beste hainbat ekitaldi antolatzen ere saiatzen gara".

Azken urteetan, adibidez, kontzertu bat antolatzen dute Aitzuri abesbatzaren laguntzarekin. "AECRen presentzia handitzeko, elkarrekin berak eskaintzen dituen zerbitzuen berri emateko eta diru pixka bat lortzeko baliatzen dugu udan egiten dugun kontzertua. Ez da sarrerarik kobratzen, baina nahi duenak bere ekarpena egiteko aukera dauka eta, ez pentsa, denbora gutxian diru dezente biltzen da. Norbaitek AECRen alde antzeko ekitaldiren bat edo bestelako zerbait antolatu edo eskaini nahiko balu ere, proposamena ongi etorria izango da".

**"Laguntza behar dugun guztietan, boluntario sare sendo baten babesa daukagu; zerbait antolatzen dugun bakoitzean, 30 pertsona inguru inplikatzeko dira"**



AECCKren Debako batzordeko hainbat boluntario zumardian.

Minbiziari ikusgarritasuna emateko eta jendartearen kontzientziazioa pizteko asmoz, beste ekintza batzuk ere egiten dituzte. Otsailaren 4an, Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunean, esate baterako, udaletxeko balkoian Haitz Haundi elkarteak egindako irudia eskegi zuten, eta eraikina bera ere berdezargizatatu zuten. Urriaren 19an ospatzen den Bularreko Minbiziaren Aurkako Egunean ere antzeko ekintza bat egiten dute; "xingola arrosa jartzen dugu udaletxeko balkoian, Amagoia Arrieta kirolariaren argazkia daraman pankartarekin". Bestalde, loteriak AECCKri urtean behin eskaintzen dion zozketarako eta Gabonetako loteriaren zozketarako dezimoak ere saltzen dituzte. "Azkenaldian, gainera, Eibarren egiten den Minbiziaren Aurkako Martxan ere presentzia izaten ahalegintzen gara".

#### Doako zerbitzua

Elkartek jasotzen dituen diru ekarpenei esker, doako hainbat

zerbitzu eskaintzen ditu AECCKk. "Dirua biltzeko antolatzen ditugun ekintza guztiak ezinbestekoak dira zerbitzu horiek mantendu ahal izateko. Deban, egia esan, oso harro gaude herritarren erantzunarekin; jendea oso eskuzabala da".

Gai horretan sakonduz, AECCKren egoitzetan askotariko laguntza ematen dela gogorarazi dute. "Eskualdeko herritarrek Eibarko egoitzan jaso ditzakete zerbitzuak, baina, tamalez, inguruko jendeak ez du elkartearen doako eskaintza osoa ezagutzen. Hori dela eta, ekintza guztietan informazio hori zabaltzen saiatzen gara". Eibarren, besteak beste, pazienteentzako eta senideentzako terapia psikosoziala eskaintzen dute eta prebentzio jarduerak ere egiten dira. "Era berean, material ortopedikoa doan har daiteke maileguan (ohe artikulatuak, eskarak ekiditeko koltxoiak, gurpil-aulkiak...). Eta tratamendua kanpoan jaso behar dutenentzako harrerako etxebizitzak ere badituzte", gaineratu dute.

**"Deban, egia esan, oso harro gaude herritarren erantzunarekin; jendea oso eskuzabala da"**

**"Tamalez, inguruko jendeak ez du elkartearen doako eskaintza osoa ezagutzen"**

# “Jendearen erantzun onak adierazten du badagoela interes bat kantatzeko dudan hori entzuteko”

EÑAUT ELORRIETA • Musikaria



Otsailaren 24an Kultur Elkartearen izango da Eñaut Elorrieta (Gernika-Lumo, 1975). Gitarra eskuetan, bakarka ariko da agertokian eta, azaldu duenez, "kantuak beren biluztasunean eta gordintasunean, baina, aldi berean, beren osotasunean" entzuteko aukera izango du publikoak. Emanaldirako sarrera guztiak agortuta daude.

**K**antugile eta abeslari gernikarrak urteak daramatza musikagintzan eta ibilbide luze eta oparo horren lagin bat erakustera dator Debara. *Berriketan*-i azaldu bezala, emanaldiak ordubete pasako iraupena izango du eta, bertan, bere ibilbidearen "errepaso moduko bat" egingo du, Ken Zazpiren abestiak ez ezik, bestelako hainbat proiektutako piezak ere kantatuz. Aipatu duenez, gustuko du Kultur Elkartearen bezalako leku berrietan lehenbizikoz aritzea. "Halakoetan, ondo egiteko gogoia sentitzen dut eta, aldi berean, erakargarria egiten zait. Beraz, pozarren joango naiz".

**'Fantasia' diskoaren biran murgilduta zabilta azkenaldian. Bira horren baitan sartzen al da Debako kontzertua ere?**

Bestelako zuzenekoetan, beste musikari batzuek laguntzen didate kantuak jantzen, baina kasu honetan neu bakarrik joango naiz. Emanaldiaren bizkarrezurra *Fantasia* diskoa izango da, baina, horrekin batera, Ken Zazpitik hasi eta nire ibilbideko beste hainbat proiektutako abestien errepaso moduko bat ere egingo dut kontzertuan. Asmoa da kantuak beren biluztasunean eta gordintasunean eskaintzea, baina, aldi berean, beren osotasunean, hau da, mundura sortu ziren moduan.



Arg.: ARRIGURI



**“Norbera norbere egiatik aritzen denean, mezu hori nola edo hala publikoarengana heltzen da”**

**“Kantu horiek nola eskainiko dituzun erabakitzeko orduan, lekua bera ere erabakigarria izaten da”**

**Minutu gutxian saldu ziren emanaldirako sarrera guztiak. Zer sentitzen da halakoetan?**

Kontzertu bat iragarri eta horrelako erantzuna izateak poz handia ematen du. Kantuak sortzerakoan, emaitza publikoarengana iritsi dadila bilatzen da, eta jendearen erantzun onak adierazten du badagoela interes bat kantatzeko dudan hori entzuteko. Hori guztia oso motibagarria da, eta kasu horietan daukadan onena eskaintzera irteten naiz.

**Zein da, zure ustez, hainbeste urteren ondoren aretoak betetzen jarraitzeko sekretua?**

Ez dakit, baina ni behintzat egiten dudan hori guztia konbentziturata eta pasioz egiten saiatzen naiz; neure egiatik abiatuta egiten dut. Askotan ez da jakiten egiten duzun horrek zer harrera izan dezakeen, baina denborarekin gero eta garbiago daukat norbera norbere egiatik aritzen denean, mezu hori nola edo hala publikoarengana heltzen dela.


**Areto txikia da Kultur Elkartekoa... Antzoki handia edo espazio txikia, zer nahiago duzu?**

Antzoki handiagoa edo areto txikiagoa izan, nik uste dut norbere proposamena leku horretara moldatzea dela interesgarriena; errepertorio bat edo beste aukeratu eta kantu horiek nola eskainiko dituzun erabakitzeko

orduan, lekua bera ere erabakigarria izaten da. Azken hilabeteetan, antzokietako biran bete-betean sartuta nabil talde handiago baten laguntzarekin eta formatu horretan oso gustura sentitzen naiz, baina uste dut Deban eskainiko dudan emanaldiaren estiloko kontzertuak ere oso aberatsak direla; asko gustatzen zait noizbehinka mota horretako kontzertuak ematea. Izan ere, kantuak sortu nitueneko sentsazio haietara gerturatzen naiz. Oso erakargarria eta interesgarria iruditzen zait taldearekin jotzean hain ezaguna dudan eta barneratuta daukadan kantu hori norberak bakarrik gitarrarekin berriro defendatzea. Abesti hori artistikoki beste ertz batetik deskubritzeko aukera ematen dit, hain zuzen ere.

**Zer nolako hartu-emana izan nahi duzu Debako publikoarekin?**

Publikoaren arabera, sentsazioak ez dira beti berdina izaten. Dena dela, esango nuke bertaratzen den entzulearentzat ere askoz gertukoagoa izaten dela esperientzia horrelako leku txikietan, publikoa hain gertu egonda. Halako emanaldietan kanal intimo bat sortzen da, oso gertukoa, entzulearen eta nire artean eta, beharbada, askoz zailagoa da hori antzoki handi batean lortzea.



**Itzul gaitzen duela urtebete pasa kaleratutako 'Fantasia' lanera. Gustura al zaude orain arte egin duen bidearekin?**

Oso pozik eta harro nago egiten dabilen bidearekin. Nire ibilbidean oso disko garrantzitsua izan da eta uste dut denborarekin oraindik ere pisu handiagoa hartuko duela. Erronka handia izan zen, nire konfort eremutik eta nire ohiko formatutik atera ninduelako. Disko honetan, oinarrizkoarekin bakarrik gelditzeko nahi artistiko bat zegoen eta, horregatik, elementuak kentzen eta kentzen joan ginen; baxu eta bateria oso gutxiarekin egindako lana da, oso era biluzian aurkeztua, eta iruditzen zait oso apustu garrantzitsua eta arriskatua izan zela. Ikuspuntu komertzialago batetik aldendu eta beste bide batzuk jorratzera ausartu naiz. Oso azkar kontsumitzera bultzatzen gaituen gizarte batean bizi gara eta disko hau, hain justu, kontrako norabidean egindako proiektu bat da; osorik eta patxadaz entzuteko eginda dago, eta denbora eskaini behar zaio.

**Nola definituko zenuke diskoa?**

Xehetasunak eta ñabardurak gailentzen dira. Oso soinua soil eta zuzena du, gordina, apaingarririk gabea. Esango nuke olatua apurtu osteko edertasuna eta apar horretan sortzen den halako energia bare moduko bat

duela diskoak. Eta iruditzen zait entzuleak ere baretasun edo bake hori aurkitu duela proposamen honetan.

**Maiatzean amaituko duzu bira. Zer erronka daukazu etorkizunera begira?**

Lan handia egin ondoren, musikalki oso momentu gozoan gaudela uste dut; hasi ginenetik hona kantuek handitzen eta ontzen joan direla iruditzen zait. Bira amaitzen denean, eta behin kontzertuetako intentsitatea jaitsita, sorkuntza prozesuan bete-betean sartzea da nire asmoa. Tarte horretan kontzertu bakan batzuk emateko aukera izatea ere espero dut, baina nire burua eta gorputza batez ere sorkuntzara bideratuta egongo dira.

**“Oso azkar kontsumitzera bultzatzen gaituen gizarte batean bizi gara eta disko hau, hain justu, kontrako norabidean egindako proiektu bat da; osorik eta patxadaz entzuteko eginda dago”**

# Pala sasoi betean emakumezkoen artean

Pilota jokoan modalitate ezberdinak egon arren, pala indar handia hartzen ari da herrian emakumeen artean eta azken urteotako joera edo hazkunde hori gertutik bizi izan dute Debako Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubean. Taldea 2018an sortu zen, frontoietan emakumeen presentzia aldarrikatzeko eta sustatzeko helburuarekin, eta orduz geroztik lan mardula egin du bide horretan. Pala da uneotan klubaren jardueraren ardatz nagusia eta bistan da hori hauspotzeko egiten duen ahalegina ez dela antzua. Horren adibide da abian jarritako azken ikastaroa ere; 30 emakume erakarri ditu, gazteak horietako asko.

**A**zkenaldian, badirudi inguruko eta Euskal Herriko hainbat herritan pala indarra hartzen ari dela emakumezkoen artean, eta Deban ere nabarmena izan da "loraldia" azken urteotan. Joera horren erakusgarri da Debako Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubak urte berriarekin batera antolatu duen pala ikastaroari egin zaion harrera. "Sekulako arrakasta" izan du ekimenak, eta "pozik" azaldu dira antolatzaileak: "Erantzuna ezin hobea izan da, palarekiko zaletasuna partekatzen duten 12 urtetik gorako 30 emakumek eman baitute izena. Partaide gehienak Debakoak dira, baina Zumaiatik datozen lau jokalarire ere baditugu tartean. Aldez aurretik antzeko lau bat ikastaro antolatu genituen eta, egia esan, arrakasta hau ez genuen inondik inora espero oraingo honetan".

Azaldu dutenez, azken txapelketan parte hartu zuten gazteek egindako eskaera aintzat hartuta antolatu dute ekimen berria, betiere pala sustatzen eta ezagutarazten jarraitzeko asmotan. "Palari gustu hartzea eta emakumeak frontoira gerturatzea da gure helburua. Sekulako poza eta aurrera egiteko gogoia ematen digu herriko jende gaztea palan jokatzera animatu dela ikusteak. Ahalegin berezia egin arren, ez da erraza izaten gazteek ere halako ekintzetan parte hartzea, eta, hortaz, oso pozik gaude deialdiak izan duen harrerarekin".

Urtarrilaren 18an ekin zioten ikastaroari eta, askotariko ariketen eta jolasen bitartez, palan trebatzeko



eta hainbat teknika ikasteko aukera izango dute bertan diharduten parte hartzaileek. "Jendea gogotsu ikusten dugu, ikasteko gogoz. Gehientzat, hau da pala hartzen duten lehen aldia, baina beste batzuk, dozena erdi inguru, gure artean ibiltzen diren palistak dira. Lau hilabete eta erdian, pala ezkerreko eskuarekin eta eskuineko eskuarekin kontrolatzen ikasiko dugu, eta horretarako koordinazioan, kokapenean... ere lan egingo dugu. Teknika pixka bat menperatu arte, teniseko pilotarekin ibiliko gara, baina, aurrerago, nahi duten guztiek gomazko pilotarekin probatzeko aukera ere izango dute".

### Hainbat zailtasun

Hainbeste parte hartzaile izanda, ikastaroa aurrera eramateko zailtasunak edo oztopoak ere izan dituzte. Batetik, Aldats pilotalekuan ez dago leku nahikorik elkarrekin aldi berean entrenatzeko. Hori dela eta, taldea bitan banatu dute azkenean eta astean ordubeteko saio bat egin ordez, bitara zabaldu behar izan dute eskaintza. "Hasiera batean, astean saio bakarra egitea zen asmoa, baina, ikastaroan hainbeste emakume izanda, ezinezkoa zen guztiak ordu berean sartzea. Hortaz, taldea bitan banatzea erabaki dugu. Asteazkenetan aritzen da lehen taldea, 18:30etik 19:30era, eta ostegunetan bigarrena, 19:30etik 20:30era".

Bestetik, azaldu dutenez, ordutegia adostea ere ez da erraza izan, "aurreikusitakoa baino txikiagoa izan baita malgutasuna". "Oso zaila izan da frontoia erabiltzeko beste ordu bat hartzea. Talde osoa pilotalekuan ordu berean sartzea ezinezkoa zenez, udaletxera jo genuen beste ordu bat eskatzera, baina ez ziguten guk proposatutako aldaketa onartu. Azkenean, Euskal Jolas taldekoek utzi digute ordua, arazoa konpondu ahal izateko".

Irakasleak aurkitzeko ere zailtasunak izan dituztela aitortu dute, gainera, Iruleak taldeko kideek. "Egia esan, halako ikastaro bat antolatzeko orduan beti izaten ditugu zailtasunak arlo horretan; Federazioan ere galdetu izan dugu, baina inor ez dago jendeari erakusteko prest. Dena dela, argi genuen gazteen eskaerari erantzuna eman behar geniola eta arrazoi horregatik erabaki dugu ikastaroarekin aurrera egitea. Zuzendaritza taldeko Amaia Aizpuru azkoitiarrak eta Iratxe Astigarraga debarrak gidatzen dituzte pala saioak".



Arg.: IRULEAK

**Azaldu dutenez, azken txapelketan parte hartu zuten gazteek egindako eskaera aintzat hartuta antolatu dute ekimena, betiere pala sustatzen eta ezagutarazten jarraitzeko asmoz**



# Kolorez eta umore onez jantzitako egunak

Otsailaren hasierak inauteri usaina ekarri du beste behin ere gurera. Ospakizunez eta kolore biziz beteriko egunak izan dira: kalejirek, musikak eta dantzek, umoreak, algarek, parodiek... eta ohitura zaharrek hartu dituzte kaleak. Hilabeteko lehen larunbatean Hungariatik etorritako kaldereroak izan ziren protagonista nagusiak eta hurrengo egunetan, berriz, mozorrorik originalenak.

Argazki gehiago:







## 26 ARGAZKI GALERIA





# Otsaila / Martxo

## OTS. 23 (OSTIRALA)

### BILERA IREKIA

**18:00** Kultur Mahaia. Kultur Elkarteko liburutegia.

## OTS. 24 (LARUNBATA)

### ZUHAITZ LANDAKETA

**09:00** Itziarko Neberalde ingurua.

### KONTZERTUAK

**20:00** KulturEkin: Eñaut Elorrieta. Kultur Elkartea.

**22:00** Dirty Old Gasteiz + 112 + Inguma. Gaztetxea.

## OTS. 25 (IGANDEA)

### ZINEMA

**19:00** 'Armageddon time'. Kultur Elkartea.

## OTS. 27 (ASTEARTEA)

### IRAKURKETA KLUBA

**19:00** 'Obras completas' (Angela Figuera Aymerich). Udal liburutegia.

## OTS. 29 (OSTEGUNA)

### HITZALDIA

**18:30** Gabirel Ezkurdia: 'Zer ari da gertatzen Palestinan?'. Kultur Elkartea.

## MAR. 3 (IGANDEA)

### ZUHAITZ EGUNA

**11:00** Debanaturaren ekimenez. Errota Zar.

### UMOREZKO IKUSKIZUNA

**18:00** 'ZtandaP'. Itziarko Burugorri Gaina.

### ZINEMA

**19:00** 'Monstruo'. Kultur Elkartea.

## MAR. 4 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## MAR. 7 (OSTEGUNA)

### ERRIGORA

**18:30**. Produktuen dastaketa. Lagun Artea elkarte.

## MAR. 8 (OSTIRALA)

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

*Egitarauari buruzko informazioa 9. orrialdean.*

## MAR. 9 (LARUNBATA)

### MAGIA IKUSKIZUNA

**20:00** KulturEkin: Niala Magoa. Kultur Elkartea.

## MAR. 10 (IGANDEA)

### IPUIN KONTAKETA

**17:30** Ispiluen gela.

### ZINEMA

**19:00** Kultur Elkartea.

## MAR. 13 (ASTEAZKENA)

### ZINEMA: 'BIZKARSORO'

**18:00** Kultur Elkartea.

## MAR. 14 (OSTEGUNA)

### BILERA IREKIA

**18:30** Euskara plana hizpide. Ispiluen gela.

## MAR. 15 (OSTIRALA)

### IPUIN KONTAKETA

**17:00** Luzaro ikastetxea.

### BERTSO AFARIA

**21:30** Bertsolariak: Manex Astigarraga, Antton Aizpurua eta Aitor Zubikarai. Arrano Elkartea.

## MAR. 16 (LARUNBATA)

### KONTZERTUA

**12:30** Musika Banda. Klaustroa.

### KORRIKA KULTURALA

Korrika Badator Eguna. *Egitaraua 10-11 orrialdeetan.*

## MAR. 17 (IGANDEA)

### LASTURKO MENDI MARTXA

**07:30** Izen-ematea: [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com)

### ZINEMA: 'BIZKARSORO'

**19:00** Kultur Elkartea.

## MAR. 18 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## MAR. 20 (ASTEAZKENA)

### KORRIKA BADATOR!

**12:00** Kalean Kantuz.  
**13:28** 23. Korrika Deban.  
Arratsaldean Korrika Txikia.

## MAR. 23 (LARUNBATA)

### DANTZA ERAKUSTALDIA

**12:30** Barra klasikoa. Ibaiko pasealekua.

### CIMASUB

**Martxoak 7, 14 eta 21**  
**18:30** Itsaspeko zinema zikloa. Kultur Elkartea.


### DEBA 100 HITZETAN

Literatur lanak aurkezteko epea: martxoak 10 (turismo bulegoan).



**www.aukera-inmobiliaria.com**  
**Aukerarik onena!**

943 12 13 95

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

## Jarrai gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



### HURRENGO HITZORDUAK




berriketan.eus/agenda

### IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekintzaren bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan martxoaren 13a baino lehen.  
berriketan@zuhatza.com  
943 19 13 83

### Telefono jakingarriak

|                           |              |                             |              |
|---------------------------|--------------|-----------------------------|--------------|
| Zuhatza Euskara Elkarte   | 943 19 13 83 | Haur Eskola                 | 943 19 20 81 |
| Debako Udala              | 943 19 28 40 | Luzaro (Ifar kalea, HH)     | 943 89 91 55 |
| Itziarko Auzo Udala       | 943 19 92 55 | Luzaro (Itziarko bidea, LH) | 943 89 91 54 |
| Udaltzaingoa              | 689 12 58 89 | Luzaro (Itziar, HH)         | 943 89 93 27 |
| Bake epaitegia            | 943 19 23 53 | Luzaro (Itziar, LH)         | 943 19 93 06 |
| Eguneko Zentroa           | 943 19 29 33 | Mendata BHI                 | 943 89 92 65 |
| Turismo Bulegoa           | 943 19 24 52 | Deba Musikal                | 943 19 20 16 |
| Ostolaza Udal Liburutegia | 943 19 25 60 | Helduen Heziketa Iraunkorra | 943 19 21 76 |
| Kirolegia                 | 943 19 22 62 | Debabe Euskaltegia          | 943 19 22 36 |
| Ertzaintza (Eibar)        | 943 53 17 00 | KZgunea                     | 943 02 36 29 |
| Osasun zentroa (Deba)     | 943 19 24 24 | Gaztelekua                  | 943 19 27 62 |
| Osasun zentroa (Itziar)   | 943 19 90 42 | Langide                     | 945 16 06 00 |
| Itziarko Botikina         | 687 75 67 21 | Correos                     | 943 19 17 99 |
| Botika - A. Zalduegi      | 669 26 22 01 | Mankomunitatea              | 943 70 07 99 |
| Botika - Burgoa Zuazo     | 667 33 88 90 | Ur Zerbitzuak               | 943 60 80 02 |
| Gurutze Gorria            | 943 19 10 32 | Debegesa                    | 943 82 01 10 |
| DYA Larrialdiak (Gip.)    | 943 46 46 22 | Euskotren                   | 944 33 33 33 |
| Mendaroko Ospitalea       | 943 03 28 00 | Lurraldebus                 | 900 30 03 40 |
| Eibarko Ospitalea         | 943 44 90 00 | Debako Parrokia             | 943 19 14 97 |
| Donostiako Ospitalea      | 943 00 70 00 | Itziarko Parrokia           | 943 19 93 04 |



**ZAINZAKO BOTIKA**  
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

**ZALDUEGI** Otsailak 23, 24, 25 eta martxoak 4, 5, 6, 7.

**BURGOA ZUAZO** Martxoak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.


22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.  
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44


**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI** 669 26 22 01  
**BURGOA ZUAZO** 667 33 88 90

**Larunbat goizetan beti bat irekita:**  
**ZALDUEGI**  
Otsailak 24 / Martxoak 16

**BURGOA ZUAZO**  
Martxoak 2 eta 9





**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

RPS\_183/12



**Deba**  
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

**SUDOKUAK**

Zailtasuna: **Erraza**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 4 |   | 8 | 3 | 1 | 5 | 2 |   |
|   |   | 1 | 6 | 7 | 2 | 8 | 9 |   |
| 8 |   | 7 | 5 | 4 |   | 1 | 6 |   |
|   |   |   | 1 | 5 |   |   | 8 |   |
|   |   |   |   |   | 6 |   |   |   |
| 7 | 5 |   |   |   |   |   |   | 6 |
|   | 6 | 2 | 4 | 1 |   |   |   |   |
|   |   | 4 | 9 | 2 |   |   |   |   |
|   | 8 | 5 |   |   | 3 |   | 4 | 9 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 4 | 9 | 1 | 5 | 2 | 7 | 8 | 3 |
| 5 | 1 | 8 | 3 | 7 | 4 | 2 | 6 | 9 |
| 8 | 3 | 7 | 5 | 4 | 1 | 6 | 2 | 9 |
| 6 | 1 | 9 | 4 | 2 | 8 | 3 | 7 | 5 |
| 5 | 7 | 4 | 6 | 3 | 9 | 8 | 1 | 2 |
| 2 | 8 | 3 | 7 | 1 | 5 | 6 | 4 | 9 |
| 3 | 6 | 1 | 5 | 4 | 9 | 2 | 7 | 8 |
| 4 | 9 | 8 | 3 | 1 | 5 | 2 | 7 | 6 |

Zailtasuna: **Ertaina**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 8 | 6 |   |   |   |   |   |   |
|   | 2 |   | 6 | 8 |   |   | 5 |   |
| 1 |   | 9 |   |   |   |   |   |   |
|   | 4 | 3 |   |   |   |   |   | 9 |
|   | 5 |   | 4 | 7 |   |   | 2 |   |
|   |   |   |   |   | 8 |   | 4 |   |
|   |   |   | 3 |   | 5 | 8 | 1 | 7 |
|   |   |   |   | 2 |   |   |   | 4 |
| 4 |   | 7 |   | 9 |   | 2 | 6 | 5 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 3 | 7 | 8 | 6 | 2 | 9 | 5 | 1 |
| 8 | 1 | 5 | 7 | 9 | 3 | 6 | 4 | 2 |
| 6 | 9 | 2 | 3 | 4 | 5 | 8 | 1 | 7 |
| 2 | 7 | 6 | 4 | 5 | 3 | 8 | 1 | 9 |
| 6 | 5 | 8 | 4 | 7 | 9 | 2 | 3 | 1 |
| 7 | 4 | 3 | 1 | 6 | 2 | 5 | 8 | 9 |
| 1 | 7 | 9 | 2 | 5 | 4 | 6 | 3 | 8 |
| 3 | 2 | 4 | 6 | 8 | 7 | 9 | 5 | 1 |
| 5 | 8 | 6 | 9 | 1 | 3 | 4 | 7 | 2 |

**HIZKI ZOPA: DEBAKO ETA ITZIARKO ESKULTUREN EGILEAK**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | I | P | L | A | N | D | O | N | E | G | I | G | A |
| Z | H | X | A | R | N | O | R | I | A | G | A | F | I |
| B | D | E | R | A | B | I | K | O | R | H | R | P | A |
| N | C | A | M | P | O | J | X | R | T | O | I | S | S |
| G | B | E | R | A | S | A | L | U | Z | E | S | I | P |
| J | A | U | R | E | G | I | C | N | B | B | I | R | L |
| U | P | A | O | N | A | N | I | A | G | B | U | Z | I |
| Y | P | T | R | A | U | T | E | T | X | E | F | B | A |
| D | H | N | O | P | U | G | E | Z | A | I | U | R | S |
| O | Z | M | Z | I | N | F | E | R | X | T | S | H | O |
| Z | L | Z | C | J | Y | C | Z | U | L | I | O | E | A |
| R | K | G | O | R | M | S | J | F | H | A | J | F | B |
| A | R | R | I | Z | A | B | A | L | A | G | A | S | L |



# Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,  
20820 Deba

T. 943 191 774  
M. 699 975 206  
info@mikeliturgintza.eus

# ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# Calbeton



JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# ENGLISH SQUARE



SCHOOL OF ENGLISH

Udako egonaldiak atzerrian familia eta erresidentzietan

Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206  
info@english-square.net

# RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

# kutxabank

# LK Home



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • inmkhome@gmail.com

# Berriketan .eus


parte hartu parte izan



# Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34




# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

# IGARZA

TABERNA



Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

# ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte gustian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA

# ME ENDAÑETA

muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria  
3000m<sup>2</sup>

Itziaroko gaina  
T.: 943 19 91 00  
F.: 943 19 91 01  
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com  
www.mueblesendaneta.com





Zuhatz  
deba

euskara  
elkartea

# Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta  
**Zuhatz Euskara Elkarte**  
bazkideen eskura

Eskatu oliba-olio birjina estra, arroz, pasta,  
kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz  
etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Eskariak [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)  
otsailak 25 - martxoak 13

**Produktuen dastaketa**  
martxoak 7, osteguna  
18:30 Lagun Artea Elkarte  
Izen-ematea: 688 84 03 08

